

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1404

AGINDUA, 2012ko otsailaren 24koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena; honen bidez, hasierako onespena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldaketari.

I.– Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez 1997an onartu baziren ere, funtsezko edukiak lanketaren hasierako etapetan zehaztu ziren, 80ko hamarkadaren amaieran. LAGak planteatu ziren unean, lurraldearen eta arloen plangintzaren garapena oraindik oso hasiberria zen, eta lurralde mailako legeria ere bai.

Ekoizpen-sistemaren aldaketa-aro bat zen, eta hirien eta ingurumenaren narriadura handia zen. Testuinguru horretan, LAGen edukiak eta diziplina jartzeko planteamendua funtsezko bi helbururen inguruan antolatu ziren:

- Hirigintzaren, ingurumenaren eta azpiegitura-garapenaren erreferentziako lurralde-eredu bat zehaztea, lurraldeko eta arloko prozesuak orientatzeko, une hartan garapen-prozesuei modu eraginkor eta jasangarrian aurre egiteko tresna juridiko eta plangintzazkorik ez zeukan lurralde batean.

- Ekonomiaren eta jendartearen eraldaketa-prozesuei lagunduko dien lurralde-eredua bultzatzea, aurreko industria-eredua agortzeak eragindako krisi sakonaren unean.

Urte horietan zehar, erronka horiei aurre egiteko LAGak eraginkorrak direla frogatu da, eta lurraldeko nahiz arloko plangintza-tresnen garapen handiko etapa bat bultzatu dute.

Tresna horien guztien bidez, azken hamarkadan zehar, bilakaera handia egon da. Euskal Autonomia Erkidegoak «hiri-eraldatze handia» dei diezaiokegun aroa bizi izan du, gure ekonomia hirugarren sektorerantz bihurtzeko eta modernizatzeko prozesu bati loturik. Horrek garapen-fase berri bat sortu du, ingurumena modu esanguratsuan hobetzeko eta hirien berrikuntza sakona egiteko.

Hala ere, lurraldea eraldatzeko prozesuetan, hamarkada bat denboraldi laburra da. Gure lurraldearen osagaiak eta oinarritzko egitura, funtsean, ez dira aldatu. LAGetako lurralde-eredua honetan oinarritzen da: hiriburuen, hiri ertainen eta horien inguruko eremu funtzionalen nukleo anitzeko sisteman; lurraldearen erabilaren arteko egokitasunean eta lurraldeak biztanleak hartzeko duen gaitasunean oinarritutako ingurune fisikoaren kudeaketan; eta eremu funtzionalak beren artean eta EAE kanpoko heriekin lotzen dituen harreman-sisteman. Eredu hori oraindik erreferentzia baliagarria da, lurralde-aldaketaren prozesuak kudeatzeko, eta, gainera, adostasun orokorra dago ereduaren erabilgarritasunaren eta eraginkortasunaren arloan.

Orain garatu eta bilakarazi egin behar dira, lurralde-eredu horretatik abiatuta, nagusitzen joan diren elementuak edo eguneratu beharra daukatenak.

Alderdi horiek honelakoak dira: mugikortasun jasangarria, paisaia, eraikuntzek hartuta dauden eta erabilera berriak edo erabilera intentsiboagoa onartzen duten eremuak berrerabiltzea eta ezagutzen intentsiboagoak diren ekonomia-jardueretarako eremuak garatzea. Funtsean, ereduaren alderdi hauek indartzean datza: lurraldearen kalitatea, jasangarritasunaren funtsezko

faktore gisa egiten duen ekarpena eta oreka eta lehiakortasuna lortzeko oinarritzko elementu gisa berrikuntza bultzatzeko eskaintzen dituen aukeren aprobetxamendua.

LAGen Aldaketa honen abiapuntua lurraldeak azken hamarkadan izan duen bilakaeraren diagnostikoa da, eta bilakaera horrek LAGetatik eta lurraldeko tresnetatik nahiz tresna sektorialetatik jaso duen erantzunaren diagnostikoa. Gaian katedradunak eta adituak diren pertsonak egindako diagnostiko-txostenak ere aintzat hartu dira, funtsezko alderdien gaineko gaikako monografiak landu dira, eta azken urteetako diziplina-aldaketa eta lurralde-esperientzia esanguratsuenak aztertu dira.

Aldi berean, parte hartzeko prozesu zabal bat garatu da: Lurralde Politikarako Aholku Batzordeko kideek lagundu dute horretan, eta administrazio-maila guztietako eta jendarteko nahiz arlo pribatuko hainbat esparrutako Adituen Foro baten ekarpenak jaso dira. EAEko udalerri guztiak ere gonbidatu dira parte hartzera.

Elementu horiei guztiei esker, proposamen estrategiko bat taxutu da: Euskal Hiria NET – Ekosistema. Proposamenaren abiaburua etapa berri honetako bi paradigma garrantzitsuenetan dago. Berrikuntza eta jasangarritasuna txanpon beraren bi aldeak dira: gure lurraldea etapa berri baterako prestatu behar da. Etapa horretan, lehiakortasuna, jendartearen kohesioa eta garapen jasangarria bereizi ezin diren hiru elementu dira, eta ezin da lortu aurrerapen eraginkorrik horietako batean ere, besteak aintzat hartu gabe.

Aldaketa hori, indarrean dauden gidalerroen ondoan modu osagarrian jartzeko pentsatua dago. Deskribatutako lanen emaitzak bildu eta egituratzen ditu, har daitezkeen norabideak eta erabakiak zehazteko, helburu nagusia gure lurraldea garapen jasangarriaren egiazko eredu bat gauzatzeko funtsezko oinarri bihurtzea izanik. Bizitokien kuantifikazioaren metodoa berrikusteko proposamen bat ere badago.

II.– Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 10.10 artikulua ezartzen duenez, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldaketak Eusko Jaurlaritzak ezarritako prozedurari jarraituz egingo dira, baldin eta berrikusketa orokorra edo funtsezkoa eskatzen ez badute.

Agindu hori garatzeko, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen, Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen duen irailaren 9ko 206/2003 Dekretua egin zen.

Alde horretatik, aipatzekoa da Jaurlaritzaren Kontseiluak erabaki bat hartu zuela, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, 2010eko urriaren 26ko bileran: hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko prozedura hastea eta aldaketa «ez dela funtsezkoa» zehaztea, irailaren 9ko 206/2003 Dekretuaren ondorioetarako. Izan ere, ez du eraldatzen indarrean dagoen planteamendu-eredua, alderdi puntualak eta osagarriak aldatu baizik.

III.– Erabaki hori 2010eko abenduaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (233. zk.), eta 2010eko abenduaren 3ko «El Correo Español-El Pueblo Vasco», «El Diario Vasco» eta «Deia» egunkarietan.

IV.– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko martxoaren 3ko idatzien bidez, beharrezko datuak eta informazioa gehienez hilabeteko epean formulatzeko eskatu zitzaizen Eusko Jaurlaritzako sailei eta gainerako administrazioei, aldaketa hobeto formulatzeko. Epe hori 2011ko uztailaren 31ra arte luzatu zen.

V.– Halaber, aldagetaren agiria interesduntzat hartutako erakunde publiko eta pribatuei bidali zitzaizen, egoki iritzitako oharrak, proposamenak eta aukerak aurkez zitzen.

Alde horretatik, Ministerioko Itsasertzaren eta Itsasoaren Jasangarritasunaren Zuzendaritza Nagusiak, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak, eta Telekomunikazio eta Informazio-Teknologiko Zuzendaritza Nagusiak aldagetaren dokumentuari buruzko aldeko txostena eman dute.

VI.– Aurkeztutako iradokizunak ikusita, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldagetaren agiria idatzi du.

VII.– Bestalde, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege Orokorrak ezartzen duenez, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek eta horien aldagetek ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuaren prozedura bete behar dute. Aipatutako legea alderdi horretan garatzeko, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua onartu zen.

183/2003 Dekretua eta zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioaren gaineko apirilaren 28ko 9/2006 Lege aplikatuz, Lurraldearen gidalerro horiek ingurumenean duen eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedurari ekin zitzaion 2011ko martxoaren 1ean; eta, horren ondorioz, 2011ko urriaren 11n, Ingurumen Sailburuordetza Ebazpena eman du, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko erreferentzia-agiria formulatuz.

Aipatutako 183/2003 Dekretuaren 16. artikuluan ezarrita dagoenez, aldageta aurrerapen-faserik gabe egiten bada –espediente honetan bezala– ingurumenaren gaineko eraginaren txosten bakarra egingo da, jendaurreko informazioaren izapidearekin batera, eta planaren aldagetaren hasierako onespina edo aldageta onartzeko lehen ekitaldia baino lehen.

IX.– Horrenbestez, aipatutako aurrekariak aztertu ondoren eta Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 10. artikuluan eta irailaren 9ko 206/2003 Dekretuaren 3.5 artikuluan jasotako eskumena betez,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Hasierako onespina ematea berrazterketaren ondorioz egin den Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldagetari.

Bigarrena.– Aldagetaren agiria eta horrek ingurumenean duen eraginaren ebaluazio bateratuaren azterlana jendaurrean jartzea, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita eta ekainaren 30a arte, partikularrek eta elkarte interesdunek egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten.

Adierazitako epe horretan, herritarrek ikusgai izango dituzte aipatutako dokumentua www.euskadi.net web orrian eta toki hauetan:

- Eusko Jaurlaritza:

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Gasteiz.

- Mendebaldeko Kantaurialdeko Arroen Bulegoa:

Ibañez de Bilbao kalea 28, 8.a.

48009 Bilbo.

- Ingurumen eta Lurralde Plangintza Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoan:

Villa Begoña, Cristina Infanta kalea, 11 (Ondarreta).

20008 Donostia-San Sebastián.

Hirugarrena.— Jendaurreko informazioarekin batera, entzunaldirako epea zabalduko zaie tokiko administrazio publiko guztiei, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita eta ekainaren 30a arte, nahi dutenek planaren gaineko alegazioak, oharak eta iradokizunak egin ditzaten.

Erabaki honen aurka ez dago errekurtsoa jartzerik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartzeko prozeduraren barruko izapide-egintza bat baita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 24a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.